

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskaldunen zenbatekoa Euskal Herrian zehar

Euskaldunak Euskal Herri osoan zehar nola dauden banatuta jakiteko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (HPIN) 16 urtetik gorako euskaldunen artean inkesta egin du. Honetarako Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako Conseil Généralaren laguntza izan du.

Beheko mapan ikus daitekeenez, euskaldunen banaketa ez da berdina. Batez-beste, euskaldunen kopururik handienak (populazioaren %50etik gora) dituzten lurraldeak Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira. Ondoren

Gipuzkoa (%44arekin) eta Lapurdi (%26arekin) datoz. Maila apalagoan Bizkaia (%17arekin) agertzen da eta, azkenik, Araba eta Nafarroa. Azken hauetan euskaldunak ez dira %10era iristen.

Ehuneko hauek lurralde bakoitzeko biztanleriari dagozkion batez-beste baloreak dira, nondik norakoak ikusteko balio dutenak. Lurralde bakoitzean, bestalde, euskaldunak ez dira neurri berean banatzen. Adina dela eta, zaharrenak eta gazteenak dira euskaldunen portzentaiarik altuenak dituztenak.

UDALTZAINGOA

IDAZKARITZA

HIRIGINTZA

LEHENDAKARITZA

HERRILANAK

NEKAZARITZA SAILA

KONTABILITATE BULEGOA


Herri erakundeen barne errotulazioa

Laster kaleratuko da Euskal Herriko herri erakundeen barne errotulazio bateratua dakarren eskuliburua. Euskararen Aholku Batzordeak proposatuta, lan honi 1990.ean ekin zitzaion. Helburua, errotulu normalizatuen zerrenda eskaintzeaz batera, barne errotulazioa egiterakoan erabili beharreko irizpideak finkatzea eta bateratze bidean jartzea izan da.

Horretarako berarizko batzordea eratu zen. Partaideak honako hauek izan ziren: Euskaltzaindia, UZEI, EUDEL, foru aldundiak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Euskal Kultur Erakundea eta Eusko Jaurlaritzak. Mila errotulu inguru aztertu dira. Lantaldea sei hilabetez aritu da lanean, astero bilduz.

Liburu honetan aurki daitezkeen errotuluak administrazio, ezberdinen bulegoetakoak dira. Ez dira aztertu oraingo honetan kultura, gizarte edo osasun zerbitzuetako errotuluak: kultura etxeak, kiroldegiak, ospitaleak, etab.

EUSKALDUNEN PORTZENTAIA



Marian Lizarralde, euskara zuzpertzalea

Jaiotzez antzuolarra izan arren, Marian Lizarralde, 42, Oñatin bizi da azken hamabi urteotan, senar eta bi seme-alabarekin.

Oñatiko Udaleko Euskara zerbitziburua dugu.

1985ean hasi zen lanean Oñatiko Udaletxean.

Euskararen egoera normalizatzen dihardu: udal langileen hizkuntza eskaerak aurrera eramanez, eguneroko lanaren jarraipena eginez, zalantzak konponduz, aholkua emanez. Kanpora begira ere euskararen zuzpertzale lanak egiten ditu.

Oñatiko 10.600 bizilagunetatik %80a inguru euskalduna da. Bi legealditan, gainera, zinegotzi guztiak euskaldunak izan dira. Euskararen aldeko faktore hauek aprobetxatuz jokatu dutela dio Marianek. Orain bost urte Euskararen Normalizaziorako Arautegia onartu

zutenetik, batzorde guztietan, baita Gobernu batzordean eta Osoko bilkuretan ere, euskaraz egiten da lan.



Marian Lizarralde

Laster udalak hitzarmen bat sinatuko du oñatiarren artean euskara bultzatzeko sortua den Laixan taldearekin. Itunak, Kontzejupetik aldizkaria eta Oñati Irratiaren lanarekin batera, areagotu egingo du euskararen erabilpena.

Orain lau urte, Lehendakariak Euskararen Aholku Batzordeko kide izendatu zuen. Bere kezka eta ekarpenak administrazioaren euskalduntzera

zuzentzen dira. Euskararen etorkizuna Oñatiko administrazioan baikor ikusten duen arren, beldur da orokorrean langileen artean etsipena ez ote den zabaltzen ari. Hori gerta ez dadin, ezinbestekotzat jotzen du administrazioaren eta herritarren arteko elkarlana.

Arabako enpresak euskalduntzen

Dagoeneko kaleratu dira Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Merkataritza Ganbarak enpresa pribatu arabarrak euskalduntzeko eraturako lehen kanpainaren datuak.

Denetara 79 ikaslek hartu dute parte. Gizon gehiago hurbildu dira emakumeak baino, seguruenik horixe delako lan munduan bertan ere ematen den proportzioa. Adinari dagokionez, jende gaztea izan da (26 urte batazbeste) ikastaro hauetan parte hartu duena.

Lau ikasletik ia hiru Gasteizen bizi dira. Besteak probintziako herrietatik etorri dira. Kanpainak industrian izan du oihartzunik handiena (Mercedes Benzen eta Conelsan batipat) eta, maila apalagoan, zerbitzuen sektorean, zenbait saltegietan batez ere.

France 3 telebista euskarazko albistegiak eskaintzen hasi da. Horretarako France 3k hitzarmena sinatu zuen Baionako alkatearekin. Euskarazko albistegiak, frantsesezko azpitoluekin, sei minutuko iraupena du eta egunero arratsaldeko zazpietako albistegiaren aurretik ematen da. Zortzi lagunez osatutako taldea ari da lanean Baionan. Albistegiak Ipar Euskal Herrian ikusten dira.

Arabaren B eta D eredu ikasleentzat ekitaldiak antolatu dira Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Ikastolen Elkarteak sinatutako hitzarmenari esker. Arabako eskola publiko eta ikastoletan dabilten mila ikaslek baino gehiagok parte hartu ahal izango dute Zuazako eta Barriako aterpetxeetan euskaraz bizitzeko antolatu diren bost egunetako egonaldietan.

Mazantini eta Nabarra. Iruñeko Mazantini literatur aldizkariaren 3. zenbakian Jean Baptiste Orpustan irakasleak dioenez, Nafarroaren jatorrizko euskal izena Nabarra da eta ez Nafarroa. Azken hau Gipuzkoatik sartu omen zen gaztearen eraginez. Ale honetan Luis Otaegi, Ainhoa Lodosa, Andolin Eguskitza, Pier Paolo Pasolini eta Patziku Perurenaren lanak datoz.

Euskara lantzen nekazaritza kooperatibetan. 1992ko urritik abendura bitartean, Markinako Miba, Itziarreko Ineko eta Azpeitiko Lurgintza nekazaritza kooperatibetan oinarrituko alfabetatze lanetan ari dira HABEK zuzenduta. Ikastaroak 40-45 ordukoak dira, astean lau ordukoak, beren eguneroko eginbeharrei euskaraz hobeto erantzuteko eraturakoak.

Elay: enpresan euskarari lekua eginez

Euskara lan munduan sartzeko ahaleginetan, Antzuolako (2.130 bizilagun) Elay enpresako esperientzia pilotoa da. Elay taldea hiru enpresak osatzen dute: Elay, 97 langile (%65a euskalduna). Seytra, 44 langile (%65a euskalduna) eta Balzers, 20 langilerekin, denak euskaldunak.

Azken 9 urteetan bilera ugari egin dira euskara bultzatu nahian. Azkenean, Hizkuntza

Politikarako Idazkaritza Nagusira jo zuten laguntza eske. HPINen eta Elhuyar elkartearen lankidetzaz, egoeraren diagnostikoa egin zen eta ondoren plangintza zehatza burutu, hiru enpresak euskalduntzeko. Aurrera egin aurretik, langileei eta zuzendaritzari aurkeztu zitzaizen eta hauen baietza jaso zuen.

Proiektua 1992ko otsailean hasi zen. Horretarako monitore bat eta irakasle bat kontratatu ziren. Finantziarioa Elayk, HPINek eta HABEren artean eramango dute

aurrera. Proiektua bera hiru urteko epeari begira jarri da martxan eta helburua enpresa osoa oinarritzko mailan kokatzea da, euskararen erabilera alde guztietan areagotzeko. Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak ematen dira



alde batetik eta komunikazio zirkuluak landu bestetik. Hauek astean behineko bilerak dira eta berauen bidez langileek zuzenean

hartzen dute parte plangintzan. Oraingoz 96 lagun ari dira zirkuluotan, zortzi taldetan banatuta.

Emaitzak eta bilakaera neurtzeko, bi jarraipen batzorde daude, enpresa barnekoa eta plangintza orokorraren jarraipena egiten duena. Aurreneko sei hilabeteetan asmoak izan duen harrera oso positiboa izan da. Elay taldean euskara bere lekua egiten hasi da era sistematiko eta egonkorrean.

Agustin Zubikarai, 78, idazle eta kazetari ondarrutarrak bere herriaren omenaldia jaso du. Ondarroak kale bati haren izena eskaini dio. Eguna egunkariko erredaktore izan zen. Euskal literaturaren arlorik gehientsuenak landu ditu bere bizitzan zehar.

Martin Ugalde, 71, idazle eta kazetari andoaindarrak Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak Euskaldunon Egunkariari emandako saria jaso zuen Aulestian. Martin aipatutako egunkariko Administrazio Kontseiluko lehendakaria da.

Xabier Mendiguren, 47, idazle eta itzultzaile ezkiotarrak Itzulpengintza, historia teoria liburua argitaratu du. Martuteneko Itzultzaile Eskolaren sortzailetarikoa da. Idazteaz batera, interprete lana ere egiten du nazioartean.

Euskal Kazetarien Jardunaldiak

Euskarazko komunikabideetako kazetarien eta adituen kezka jasotzen ditu, baita euskara hobean lan egiteko proposamenak ere. Donostian 1990eko maiatzean esandakoak oso aintzat hartzekoak dira. HPINek argitara ohi duen Agiriak bildumaren 1. zenbakia dugu.



✂

EUSKARAREN BERRIPAPERA ZURE etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtono Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:.....
.....
Helbidea:
.....
Herria:.....
Kodea:.....
Probintzia:.....
Tfnoa:.....

Galdezka

Euskalduntzea

G. Beharrezko ikusten al duzu euskalduntze politika berrikustea?

E. Ez. Kontutan izan behar da bai Estatutuak eta bai Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legeak diotenez, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala. Horrek gizarteak onartutako elebitasun diseinua dakar. Gure politikak elebitasuna ezezik eleaniztasuna ere hartzen du aintzakotzat. Bide onean gabiltzala uste dut eta euskararen legea herri honen gehiengo politikoa lortzen demokratikoa izan zela. Hamar urteren buruan akordio hori eguneratzeko gai izan behar dugula iruditzen zait. Guraso gehienek beren seme-alabentzat B eta D irakaskuntza ereduak aukeratzen dituzte. Horrek, hiritarrak hizkuntzaren normalizazioaren alde daudela erakusten du. Beldur naiz zenbait diskurtso politikoren eta gizartearen jarreraren artean egokitze falta ez ote dagoen.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia.

"Ekin euskarari" Laudion izan eta gero

Badira bost hilabete pasatxo Ekin euskarari erakusketa Laudion izan zela, baina oraindik bizirik dirau erakusketa haren arrastoak herri arabarrean.

Izan ere, Ekin euskarari erakusketa Laudion egin zenetik, ostegunetako azokan euskaraz eta erdaraz iragartzen dira saltzaile ibiltarien produktuak. Jamones dioen tokian pernilar ere esaten du plastifikaturiko kartulinak, eta horrela salgai guztiekin.

Laudioko antolatzaileek ederto ulertu zuten Ekin euskarari erakusketa euskara gizarteratzeari buruzkoa zela. Horregatik, hainbat ekintza antolatu zituzten erakusketaren mezua indartzeko. Osteguneroko azokaren giroa euskaldundu nahian, antolatzaileek plastifikaturiko kartulina elebidunak prestatu zituzten. Saltzaileei proposatu eta haiek ametoa eman zuten.

Ia urte erdi honetan azokara doazen laudiotarrak ohitu egin dira produktuak euskaraz ere iragarrita ikustera. Zorionak!



✓ Kontuan hartzeko

- **Ekin euskarari Gernikan.** Erakusketa hau poliki-poliki aurrera doa. Laster, abenduaren 11tik 20ra bitartean Gernikan izango da, Kultur Etxean.
- **Idazkaritza Umeen Gabonetako Parkean.** Abenduaren 16tik urtarrilaren 6ra arte izango da, Bilboko Erakustazokan. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza

Nagusiak txoko bat izango du, umeentzako aukera ugariarekin.

- **M. Karmen Garmendiaren agerraldia.** Euskararen legearen 10. urtemuga dela eta M. Karmen Garmendiak Eusko Legebiltzarrari egindako azalpena laster argitaratuko da.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA